



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 31

19. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzul diezaion. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lan erreforma indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Langileen Estatutuko 52. artikulua ez dezan aplika. Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen edo herrilurretako bideen arauketa homogeen bat adostu dezan. Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia Ugarietarako buruzko 20/2003 Foru Legea garatu dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun alorreko larrialdiko garraioa eta garraio programatu berrantolatze eta larrialdietarako erantzuteko plan bat prestatu dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan UNICEFen Umeen hiri lagunak programa bultzatu dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalerako interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da profil elebiduna ezar dezan eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait zerbitzutako lanpostuetan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa bai parlamentu taldeek aurkeztu dute (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez proposatzen da Nafarroako Parlamentuan oroigarri bat jar dadin Nafarroan zio politikoaren indarkeriaren eta poliziaren gehiegikeriaren ondorioz izandako biktimen omenez. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpiku emerituaren adierazpenak gaitzesten baititu. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Holokaustoaren biktimez oroitzeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Tafalla, Tuter, Azagra, Zarrakaztelu eta Lizarrako eskualdeetako osasun garraiorako lehiaketa arautzen duen baldintza-orriari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Iturrondo Zentroari, ekintzaile txikiei aholkularitza eta laguntza ematen jarrai dezan, 2014. urterako esleitu zaizkion giza-baliabideei eta baliabide ekonomikoei buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Europar Batasunetik kanpoko BAMen estatusa konpontzeko garatu dituen ekintzei buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroaren eta Estatuaren artean Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeko izan diren bilera teknikoari, jarduketa-agendari, aktei eta informazioari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Zerbitzuak 2014. urtean zehar egin asmo dituen txostenen, jarduketan eta helburuen egutegiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).
- Galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berreskuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa, Idatziz erantzuteko galdera bihurtzea (21. or.).
- Galdera, lan-talde fiskalaren lan esparruan edukien eta epeen aldetik hartu diren konpromisoak mantentzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Goenaga andreak Zergen arloko Heziketarako Estrategian prestatu eta Nafarroako Gobernuak bere eginen dituen neurriei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko otsailaren 28ko eguerdiko hamabiak arte** luza-

tzea. Aipatu foru lege proposamena 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein

batean aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Sustapen Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko otsailaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarilaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztu eta 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea alda-

tzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Sustapen Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko otsailaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzul diezaion.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzul diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Urtarril honetan urtebete da Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa pribatizatu (kanpoan kontratatu) zenetik. Enpresa pribatu batek kudeatu du urte oso batez zerbitzu hori, zeina ospitaleratuta dauden gaixoen prozesu terapeutikoaren parte oso garrantzitsu bat baita.

Pribatizazio hori gogor kritikatu dute Parlamentuko oposizioaren alde handi batek, gehiengo sin-

dikalak eta Nafarroako Ospitaleguneko nutrizio-zerbitzuko langileek.

Urte honetan guztian zehar, desdoitasun ugari gertatu dira sukalde-zerbitzuan, eragina izan dutenak elikadura- nahiz nutrizio-zerbitzuen funtzionamendu onean: disfuntzioak dietak diseinatzean, janarien tenperatura desegokia, janaria berotzeko prozesuaren arazoak, gurdien tamaina eta pisu desegokia eta sare elektrikoarekiko kontaktua, zailtasunak nutrizio- eta elikadura-prozesu osoan parte hartzen duten profesionalen artean, eta gaixoen eta familiartekoen kexak eta haserrea.

Janari asko eta asko botatzen da egunero zaborretara, senitartekoen etxetik ekartzen dute janaria, edo kafetegian erosten dute; hartara, osasun arloko langileen kontroletik kanpo gelditzen da.

Pribatizazio-prozesu horrek guztiak, berebat, langabezian utzi ditu Nafarroako Ospitalegunearen zerbitzuan urteak lanean zeramatzaten emakumeak, eta ez ditu bete Osasun Departamentuak aurreikusitako beharrianak eta hobekuntzak, zeinen bidez justifikatzen baitzuen sukaldeen kudeaketaren pribatizazioa.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzul diezaion.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lan erreforma indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Langileen Estatutuko 52. artikulua aldaketa ez dezan aplikatu.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita lan erreforma indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baita Langileen Estatutuko 52. artikulua aldaketa ez dezan aplikatu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuaren gehiengoa argi eta garbi azaldu da Alderdi Popularraren Gobernuak 2012ko otsailaren 10ean Errege Lege-dekretu bidez lan-arloan onetsitako legeriaren erreformaren aurka.

Izan ere, Parlamentuan zenbait ekimen garatu dira erakuste aldera “atzerakada sozial onartezina eta bidegabekeria jasanezina dakartzala berekin, eta larriki urratzen dituela langileen eskubideak” (8-12/MOC-000 19).

Adierazpen instituzionalek, mozioek eta, bereziki, enpresa askotako ordezkari sindikalekin egindako lan bilerek erakutsi dute aipatu erreforma horren aplikazioa lan-eskubideen galera eta kalteak eragiten ari dela.

2013ko azaroaren 20an, Correoseko ordezkari sindikalek agerraldia egin zuten Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean, langile bat

gaixotasun kroniko bat edukitzeagatik iraitzi izanari buruz informatzeko.

Langileen Estatutuaren 52. artikuluko d) letra erreformak honako hau ezartzen du: “Tarteka lanera ez joategatik, eta hutsegiteak zurituta egon arren, elkarren segidako bi hilabetetan lan-egunen % 20ra iristen badira hutsegiteak; edo, hamabi hilabeteko aldian, solteko lau hilabetetan lan-egunen % 25era iristen badira.

«Aurreko lerrokadaren ondoretarako, absentiak ez dira lanera ez-joate moduan zenbatuko, absentzia horien oinarri direnean, dela legezko greba, grebak iraun bitartean, dela langileen legezordezkarien jarduera, dela lan-istripua, dela amatasuna, dela haurdunaldi eta edoskitze bitarteko arriskua, direla haurdunaldi, erditze edo edoskitzeak eragindako gaixotasunak, dela aitatasuna, direla baimenak, direla oporrak, dela lan-izaerarik gabeko gaixotasun edo istripua, noiz eta baja osasun-zerbitzu ofizialek erabaki dutenean eta baja horren iraupena ondoz ondoko hoge egun baino luzeagoa denean. Era berean, ez dira lanera ez-joate moduan zenbatuko genero-indarkeriatik eratorritako egoera fisiko edo psikologikoaren ondoriozko ez-joateak, baldin eta egoera hori laguntzarako gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek egiaztatu badute, kasuan-kasuan bidezkoa zer den kontuan hartuta.

Minbiziagatik edo gaixotasun larri batengatik egindako tratamendu mediko batengatik gertatutako absentiak ere ez dira kontuan hartuko”.

52. artikulua aplikatzearen ondorio bat izan daiteke edozein langile, bitan egon bada aldi baterako ezgaitasunean gertakizun arruntarengatik, 14 hilabeteko denboran, eta lehenbizikoan errekupe-ratio eta altako batez besteko aldia 14 egunekoa bada, eta bigarrenean bajako egunen batura 9tik gorakoa bada, 20tik gorakoa izan gabe, langile hori kaleratua izatea.

Inguruabar hori are nabarmenagoa eta larriagoa da eritasun kronikoa dutenentzat, egoera berezi horrek tarteka bajak hartu beharra dakarrelako.

Garrantzitsua da, mota horretako arauak dakartzaten ondorioei dagokienez esanguratsua delako, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak “Gaixotasun arruntaren eta lanetik kanpoko istri-

puaren ondoriozko aldi baterako ezintasunaren adierazleak, 2013ko lehen seihilekoa” izeneko txostenean azaldutakoa.

Lan-ezintasunaren adierazle guztietan jaitsiera izateari buruz badu “susmoa, langileak lanera itzultzen direla beste garai sozioekonomikoetan ohi baino goizago, eta, ziurrenik, osasun egoera ez guztiz osoan”.

Era berean, “Osasuneko Institutu Nazionalaren diagnostikoen araberako aldi baterako ezintasunaren” iraupenaren gaineko txostena, lotuta dago 84 gaixotasunekin, haien batez besteko iraupenagatik bajako 14 egun baino gehiago sortu ahal dituztelako, hain zuen ere kopuru hori lotuta baitago kaleratzea, aipatu artikulua aplikatuz. .

Araudi horrek langileak lanpostura itzultzea behartzen ditu, sendatu ez badira ere, Langileen Estatutuan ezarritako mugara hurbiltzen direnean, edo “enpresariaren borondate onaren” menpe gelditzera, haiek kaleratzeko duen aukera erabil ez dezan.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Langileen Estatutuko 52. artikuluko d) atalaren aldaketa, Alderdi Popularraren gobernu zentralak bultzatutako lan erreformaren barnean.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du lan erreforma indargabetu dezan, bereziki kontratua arrazoi objektiboen ondorioz amaitzeari buruzko d) puntuari dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lehen azaldu den artikulua ez diezaien aplikatu, inolako kasutan ere, administrazio lan-kontratudunei.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du berak azpikontratatzeko dituen enpresei eragotz diezaien, dituen tresnak erabiliz, kontratua arrazoi objektiboen ondoriozko amaiera, 52. artikularen aplikazioarekin lotutako arrazoiak baitira, gertakizun arruntaren ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagokionez.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen edo herrilurretako bideen arauketa homogeen bat adostu dezan.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen edo herrilurretako bideen arauketa homogeen bat adostu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen edo herrilurretako bideen arauketa homogeen bat adostu dezan.

Parlamentu-talde Popularrak zenbait ekimen planteatu ditu legegintzaldi honetan, pertsonak eta ibilgailuak lurzoru ez-urbanizagarriko bideetarako iragartzeak dagokionez.

2013ko martxoaren 9an, PPK aurkeztutako mozio bat onetsi zuen Parlamentuak, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baitzen berrazter eta gaurkotu zezan otsailaren 14ko 36/1994 Foru Dekretua, halako moduan non

behar bezala seinaleztatutako ibilbideak, inongo oztoporik gabeak, sortuko baitziren, pertsonak eta ibilgailuak iragate aldera. Orobat premiatzen zen aplikazio informatiko bat sor zezan, ibilbide baimenduei buruzko datuak jasoko zituen.

PPk bi auzi horien aplikazioari eta garapenari buruzko ahozko galdera bat egin zion Nafarroako Gobernuari, iragan azaroaren 11n egindako Osoko Bilkuran.

Horri buruzko azken ekimena 8-13/PES-00206 zenbakiko espedientearen bidez erregistratu zen. 2014ko urtarrilaren 9an egiaztatu zen Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren agindua bete gabe jarraitzen zuela.

Bitartean, Nafarroako toki entitateek basobideen erabilera arautzeari ekin diote. NAOren arabera, ondoko entitateek hasi edo burutu dute arautze-prozesu hori 2012an eta 2013an zehar: Ezkabarte, Eugi, Oriain, Azotz, Ilarregi, Añezkar, Etxalar, Lantz edo Zaraitzu Ibarreko Batzar Nagusia, adibide batzuk ematearren.

Toki autonomiarekiko eta eskumenekiko errespetu osoz, aski da kasu horien azaleko azterketa bat egitea kontzeptu, irizpide eta arauketa aniztasun handia aurkitzeko entitateek basobideen kasuan ezarritako erabilerari dagokionez.

Erabilera hori arautzen duten ordenantzek osagai komunak badituzte ere, araua garatzeko orduan kontzeptuen arteko alde nabarmenak ikusten dira pisten kategoriak, baimen mota, abiadura eta erabilerarengatik tasa bat egon behar den ala ez ezartzean.

Halatan, kasu batzuetan beren tamainaren arabera bereizten dira pistak (2 metro baino txikiagoak), edo erabileraren arabera (basokoa, abeltzaintzakoa, eta abar).

Toki entitateek basobideetan ezarritako gehieneko abiadura ere alda daiteke, orduko 20 eta 40 kilometro bitartekoa izan baitaiteke. Ordenantza batzuek abiadura bakarra ezartzen dute ibilgailu mota guztientzat, eta beste batzuek bi muga ezartzen dituzte, ibilgailuen ardatz-kopuruaren arabera. Irizpiderik erabiliena 30km/h-koa da, baina kasuren batean 25 km/h-koa da.

Pisten erabilerari dagokionez, denetarik dago:

– Debeku orokorra eta baimenik gabekoen-tzako debekua.

– Debekua urte sasoi jakin batean (esaterako, abuztuaren 15etik azaroaren 15era).

– Debekua ibilgailu jakin batzuentzat (esaterako, quadak).

– Sarrera-baimena dutenentzat soilik izatea.

– Sarrerak eta baimena lortzeko baldintzak (etxebizitzaren edo lursailen jabe izatea, herrian jaiotza izana, herriko ehiztarien elkartekoa izatea, erroldaturik egotea eta zirkulazioaren gaineko zerga herrian edukitzea).

– Ibilgailuaren gehieneko pisuari lotutako baimena.

– Ibilgailuen zirkulazioarengatik tasa bat egotea (1,40 edo 2,70 eurokoa, tona bakoitzeko), ibilgailuaren pisuaren arabera ezartzen dena (20 edo 30 tona), edo ibilgailuaren erabileraren arabera (basoko erabilera).

Ordenantzek orobat jasotzen dute zer jarduera dauden debekatuta, eta beste kasu batzuetan beste kontzeptu batzuk arautzen dituzte; esate baterako, aparkalekuak sortzea.

Azkenik, ordenantzetako batean hitzez hitz ezartzen da Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuko Basozaintzari agintzen zaiola hori betetzen dela zaintzea, eta Foruzaindik Polizia Administrazio boko Dibisioa eta Guardia Zibileko Seprona premiatzen dira.

Ordenantzen edukien askotarikotasuna ikusita, arazoizkoa ematen du irizpide komunagoak ezartzeak, eskualde bakoitzaren berezitasunak gorabehera, natur baloreak zainduz eta gordez betiere. Halaxe planteatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekiko lankidetzak, toki entitateak biltzen dituen, beren interes komunak babesten dituen eta toki autonomia defendatzen duen entitatea den aldetik.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekiko lankidetzak hori planteatzen da Nafarroako Gobernuak 8-13/PES-00206 zenbakiko espedientearen emandako erantzuneko edukiaren osagarri gisa; erantzunean, jarduketak-sorta bat aipatzen da, inolako eperik aintzat hartu eta ezarri gabe.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lantalde bat sor dezan, modu homogeen arautze aldera Nafarroako basobideen edo herrilurretako bideen erabilera.

2. Irizpide horiek 6 hilabeteko epean presta ditzan, toki entitateek aplikatu ahal izateko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia Ugariari buruzko 20/2003 Foru Legea garatu dezan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Familia Ugariari buruzko 20/2003 Foru Legea garatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Familia Ugariari buruzko 20/2003 Foru Legea garatzeko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak, Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen bidez, kolektibo hori babesteko araudi bat ezarri zuen, hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, garraioaren eta zerga-tratamenduaren arloetako berariazko laguntza ekonomikoen bitartekoa.

Araudi hori zuzenean lotzen zaio Konstituzioaren 39.1 artikuluari, zeinak adierazten baitu botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatu behar dutela. Araudi berria, orobat, Nafarroako Gobernuak 2002an Familiari Laguntzeko Plana onestearekin lotuta dago.

Heldu den apirilean hamar urte beteko dira 20/2003 Foru Legea indarrean sartu zenetik; alegia, denbora tarte egokia arauaren edukia, gara-

pena eta, bereziki, eraginkortasun erreala aztertzeko.

20/2003 Foru Legeak hamahiru artikulua eta mota ezberdinetako sei xedapen ditu, eta Nafarroako Gobernuari agintzen dio araua erregelamendu bidez gara dezan, halako moduan non oinarrizko arauaren aplikazio zabalago eta eraginkorrago bat egingen baita, Konstituzioaren edukia betetzeaz gain.

Izan ere, hutsalak dira 20/2003 Foru Legean jasotako aipamenak, zeinen bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio erregelamendu bidez zehatz dezan arauan jasotakoa.

Hori da, esate baterako, 1.2, 4.3, 6, 7, 8, 9, 10, 11 eta 12. artikuluen, lehen nahiz bigarren xedapen gehigarrien eta azken xedapenetako lehen nahiz bigarrenaren kasua.

Nafarroako Familia Ugariari Elkarteak ere egiaztatu du 20/2003 Foru Legearen arau-garapenik eza.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Familia Ugariari buruzko 20/2003 Foru Legea 6 hilabeteko epean gara dezan.

2. Gobernua prestatzen ari den erreforma fiskal integralean jaso dezan familia ugariarentzako zerga-arinketa berariazkoen programa bat.

3. Nafarroako aurrekontu orokorrean mantentzan familiei oro har eta familia ugariari bereziki egiazki laguntzeko politika bat garatzeko behar diren kontusailak, behar adinako zuzkidurarekin.

4. 20/2003 Foru Legea onetsi zenetik izan duen aplikazioaren balantze bat egin dezan, familiari eta familia ugariari laguntzeko programak aldatu eta gaurkotze aldera.

Balantze hori Parlamentuko kasuko batzordean aurkeztuko da, hiru hilabeteko epean.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da osasun alorreko larrialdiko garraioa eta garraio programatua berrantolatzeko eta larrialdiei erantzuteko plan bat presta dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita osasun alorreko larrialdiko garraioa eta garraio programatua berrantolatzeko eta larrialdiei erantzuteko plan bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Orain dela gutxi, osasun-garraioaren sektoreko hainbat ordezkariarekin nahiz langile horien ordezkari diren kolektiboekin egindako lan-bileretan, Nafarroako Foru Komunitateko larrialdiko eta ez-larrialdiko osasun-garraioaren egungo ereduari buruzko beren iritzia ezagutu ahal izan dugu. Iritzi horien bitartez, eredu horren ahuleziak, mehatxuak, indarraketa eskaintzen dituen aukerak ezagutu ahal izan ditugu, eta ondorio nagusi batzuk atera ahal izan ditugu, behartzen gaituztenak Nafarroako Gobernuari eskatzera egungo eredu berrazter dezan, Nafarroako herritarrei zerbitzu hobea eman ahal izateko finean, eta egonkortasuna irabazteko.

Gure iritziz, ezinbestez aztertu beharra dago larrialdiko osasun-garraioari nahiz programatuak aurre egite aldera Foru Komunitateak egun dituen baliabideak, bai eta balizko larrialdiak artatzeko dituenak ere. Berraztertze horretan garran-

tziak da aztertzea zer eginkizun betetzen duen sistemaren egungo baliabide bakoitzak, ez horietakoren bat desagerrarazteko, baizik eta eginkizun hori bere ahamenen arabera izan dadin saiatzeko: profesionalak, suhiltzaileak, boluntarioak...

Erantzun beharreko galdera garrantzitsuetako bat da, lehenengo eta behin, ea egungo baliabideak aski diren ala ez. Bigarrenik, garrantzitsua da konpontzen saiatzea sektorea antolatzen duen araudiaren aldaketak ekarri duen arazo; izan ere, osasun-larrialdietako teknikari titulua eduki beharra dago gisa horretako zerbitzua emateko. Behar adinako eskarmentua -5 urte- frogatu ezin duten pertsonentzat zaila da titulu hori lortzea, eta bide egokian aurrera egin ezean, langilerik eza arazo gehigarri bat izanen da. Beste erabaki garrantzitsu bat da aztertzea ea egungo zonifikazioa egokia den ala ez, gerta litezkeen larrialdiei garaiz erantzuteko. Interesgarria izanen da erabakitzea, orobat, erabakiak hartzerakoan egun gertatzen den bikoiztasuna -Osasun Departamentua eta Barne Departamentua- mantendu behar den ala aldatu behar den, bizkortasuna irabazteko eta koordinazioa hobetzeko.

Finean, ekimen honen proposatzaileak garen aldetik, uste dugu beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak egungo eredu berraztertzea, alde aurretik sektoreko eragile nagusiei kontsulta egin ostean eta haiekin adosturik, ezegonkortasunaren ordezkari egonkortasuna ekarriko duena eta baliabideen kudeaketa hobea eta argiago baten mesedetan, herritarrei zerbitzu hobea, eraginkorragoa eta efizienteagoa emateko.

Hori dela-eta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 6 hilabeteko epean plan bat taxutu dezan, larrialdiko osasun-garraio sistemaren eta programatuaren eta larrialdiak artatzeko berrantolatzeko, alde aurretik sektoreko eragile nagusiekin adostuta.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Ffederazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan UNICEFen Umeen hiri lagunak programa bultzatzea.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Ffederazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan UNICEFen Umeen hiri lagunak programa bultzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Unicefek sustatzen duen "Umeen Hiri Lagunak" programa bultzatzeko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Umeen Hiri Lagunak Unicef Espainiak 2002tik bultzatzen duen programa bat da, Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa toki entitateen esparruan aplikatu dadin sustatzeko.

Unicef Espainiak "Umeen Hiri Lagunak" programaren lehentasunezko helburuen artean ezarrita dauzka udalen haurtzaro-planak sortzea,

haur guztiek udalaren bizitza publikoan herritar gisa parte har dezaten sustatzea, neska-mutilen eskubideak garatzea erraztuko duten gisa guztietako udal-politikak bultzatzea eta, gainera, Unicef Espainiak toki entitateekin sareko lana egin dezaten sustatzea.

Nafarroako Parlamentuak berak, zehazki Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzordeak, 2012ko martxoaren 21ean lan-bilera bat egin zuen Unicefek gure erkidegoan duen koordinatzailearekin. Elkarte horrek legebiltzarrari planteatu zion haurrak babesteko planak sortu beharko lirakekeela. Ordezkariek berariaz aipatu zuen "Umeen Hiri Lagunak" programa eta harekin bat egiteko gonbit egin zuen.

Lan-bilera horretatik iragan den denbora dela eta, eta ikusita gaur egun Nafarroako toki entitate bakar bat ere ez dagoela "Umeen Hiri Lagunak" programan, beharrezko gertatzen da erakundeek hura bultzatzea eta Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak babesa ematea.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean aritu dadin, Nafarroan "Umeen Hiri Lagunak" programa bultzatzeko, halako moduz non toki entitateak 2014rako harekin bat egiteko moduan egonen diren.

2. Unicefen ekimenaren xedeak bere egin ditzan, "Umeen Hiri Lagunak" programarako jarduketak batzuk politika orokorrean eta sektorialean jaso ahal izateko edo Administrazioak sustatu ahal izateko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalerako interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalerako interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urte hauetan, gobernu-jarduketaren esparru askotan, eta, noski, kultur jarduketaren esparruan, ikusi dugu nola urte anitzeko finantzak eta hitzarmenak erabiltzen diren; izan ere, hitzarmen horiek egonkortasuna ematen zieten beren jarduera jarraitutasunez, kontrastatzeko moduko kalitateaz eta, askotan, auto-finantzaketa portzentaje handiekin gauzatzen zuten kolektibo askori. Gainera, errotuta dauden jarduerak dira, ehunka edo

milaka pertsona ukitzen dituztenak eta indar handiz laguntzen dutenak kultura zabaltzera ematen eta oinarritzko kultur ehundura bat sortzen, zeinak ikaragarritzko balio soziala baitu, kultura demokratizatzeko tresna eraginkorra den aldetik. Batzuetan, egiazko kultur erakundeak dira, kanporako proiektio handia dutenak eta antolamenduzko erabakien ondorioz baizik ez daudenak Administrazioaren esparru zorrotzetik kanpo.

Urte anitzeko hitzarmenen sistema abandonatzeko fetitxe gisa urteko deialdien bitartezko lehia aipatzen da. Alabaina, "lehia" hori zenbaitetan ez da tresna baliagarri eta eraginkorra izaten, edo ez da beti halakoa izaten, eta, gainera, bere mugak ere badauzka. Ehundura sozialean txertaturiko kolektiboek jarraitutasunez garatutako aipatu ditugun kultur jardueren kasuan, programazio planifikatu eta antolatua zailtzen da, zeren eta halakoak egiteko denbora-muga zabalagoak behar baitira. Gainera, arriskua dago kultura muturreraino merkaturgai bihurtzeko, zeren eta erraztu egiten baita onuraren irizpidea besterik ez duten agenteak sartzeko eta, areago, horien mesedegarri gertatzen den jokaleku bat, bidegabeko lehiakoa, sortzen du.

Gogoeta horiek direla eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du urte anitzeko hitzarmenen esparru egonkor bat taxutu eta abiaraz dezan, Nafarroarentzat eta bere garapen kulturalarentzat, beren garrantzia, errotzea, interes soziala edo barne nahiz kanpo proiektioa direla eta, interes berezikotzat jotzen diren entitate eta jarduera kulturalak finantzatzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentariak: Miren Aranoa Astigarraga eta Juan Carlos Longás García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da profil elebiduna ezar dezan eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait zerbitzutako lanpostuetan.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa bai parlamentu taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita profil elebiduna ezar dezan eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait zerbitzutako lanpostuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Legeak herritarrei administrazio publikoarekin euskaraz aritzeko eskubidea aitortzen badie ere, Nafarroako udalerrri euskaldunetako osasun etxe eta liburutegietan ez da euskarazko zerbitzurik bermatzen. Errealitate horrek, herritarren hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, euskararen normalizazioa kaltetzen du.

Legeari erreparatzen badiogu, Foru hobekuntzari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikulua dio euskara ofiziala izango dela Nafarroako zonalde euskaldunetan. Eta Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 6. artikulua dio herritarrei administrazio publikoekin harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen zaiela.

Zonifikazioak kalte egiten dio euskararen normalizazioari eta, gure ustez, euskararen legeak aldaketa sakona behar du benetan euskararen erabilera sustatzeko. Beraz, indarrean dagoen euskararen legea ontzat eman gabe, beharrezko-

tzat jotzen dugu gutxienez eremu euskaldunetan bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea. Tartean sartzen da osasun-zerbitzua eta liburutegietako zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Gune horietan zerbitzu euskalduna bermatuzetik urruti gaude oraindik; izan ere, oraindik oztopo asko ditugu euskaraz artatuak izateko.

Eremu euskalduneko liburuzainei dagokienez, adibidez, liburuzainek ez dute profil elebiduna plantilla organikoan, ez dago inolako planik Nafarroako Gobernuaren aldetik dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainak euskalduntzeko, ez da aurreikusten, ezta ere, elebidunak diren liburuzainen ordezkotetan langile elebidunak egotea.

Osasun-zerbitzuari erreparatuz gero, eremu euskalduneko osasun etxeetako lanpostuen hizkuntza profilek ez dituzte bermatzen euskaldunen hizkuntza eskubideak, eskatutako euskara mailak ez du ziurtatzen euskararen gaitasuna eta lanpostu elebidunen ordezkotak egiterakoan jarraitzen diren irizpideak ez du ziurtatzen langile elebiduna ezarriko dela, besteak beste.

Hau guztia kontuan izanik eta UEMAK egindako eskariak gure eginez, aurkezten dugu honako ebazpen proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Eremu euskaldunetan.

a. Osasun etxeetako eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jar diezaien. Lehenetsunez pediatria, mediku eta jendaurrean lan egiten duten langileei. Baita Emakumeen Arretarako Zentroetako lanpostuek ere V3 jakite maila izatea.

b. Urgentziazko zerbitzuetako langileen hizkuntza profila zehatz ditzan.

c. Profil elebiduna ez duten liburuzainen lanpostuei profil elebiduna jar diezaien. Profil hori C1 mailakoa izatea.

2. Eremu mistoan.

a. Zenbait lanposturi profil elebiduna para diezaien; batez ere liburuzain bat baino gehiago dauden liburutegietan. Era berean plaza elebidunen

ordezkoetan langile elebidunak egon daitezela berma dezan.

b. Dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainen kasuan, horiendako euskalduntze plan bat diseina dezan. Liburuzain guztiei, oro har, euskara ikasteko erraztasunak eman diezazkien.

3. Gainerako osasun arloetan, urratsak ematen has dadin: paisaia linguistikoa, informazio-orriak, mamografiako zitazioak, mamografiako txostenak,

erradiografia zerbitzuko inkestak, hitzorduak jartzeko SMS-mezuak, baja-agiriak...

4. Liburutegien Sareko udalekin eginak dauzkan hitzarmenetan hizkuntzaren erabilerari buruzko irizpideak ezar ditzan: liburu eta materialak hornitzea, paisaia linguistikoa, informazio-orriak, aplikazio informatikoa...

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentariak: Aitziber Sarasola Jaca eta Nekane Pérez Irazabal

Mozioa. Horren bidez proposatzen da Nafarroako Parlamentuan oroigarri bat jar dadin Nafarroan zio politikoaren indarkeriaren eta poliziaren gehiegikeriaren ondorioz izandako biktimen omenez.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez proposatzen baita Nafarroako Parlamentuan oroigarri bat jar dadin Nafarroan zio politikoaren indarkeriaren eta poliziaren gehiegikeriaren ondorioz izandako biktimen omenez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen du ezen, Parlamentuaren atalondoa deitutako tokian, plaka bat jarriko dela ez defentsarik, ez epaiketarik, ez aitorpenik gabe 1936an hildako kargu politikoen omenez.

Baluarteko plazako toki nabarmen batean, Parlamentu honen ondoan, ETaren terrorismoaren biktimen aldeko monumentu bat dago. Baina motibazio politikoko bestelako indarkerien edo poliziaren gehiegikerien ondoriozko biktima ugariak oraindik ere ez dute inongo aitorpenik. Halakoen adibide dira Mikel Zabalza, Germán Rodríguez, Gladys del Estal, Ángel Berroeta eta abar.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

33/2013 Foru Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako plaka jartzen denean, aldi berean, Parlamentu honetako leku egokienean, oroigarri bat jar dadila motibazio politikoaren eta poliziaren gehiegikerien ondorioz Nafarroan izan diren biktimen omenetan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpiku emerituaren adierazpenak gaitzesten baititu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpiku emerituaren adierazpenak gaitzesten ditu, sektarioak direlako eta sexu-orientazio jakin bat bizi eta sentitzen duten pertsona guztienganako errespeturik erakusten ez dutelako, eta dei egiten die Sebastián apezpikuari

berari nahiz Eliza Katolikoak Espainian dituen erakundeei, diskurtso ekiboko eta errespetugabeez joratu ezin diren errealitate batzuekiko beren jarrera berrazter dezaten, onarpena sortu beharrean arbuioa sortzen dutenak, alferrik sortu ere, bidegabeak izateragatik.”

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Holokaustoaren biktimez oroitzeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Holokaustoaren biktimez oroitzeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.
2. Deuseztatze-esparruetan hildako nafarrak gogoratu eta omentzen ditu, eta Nafarroako gizar-

te osoaren elkartasuna helarazi nahi die horien familiei.

3. Giza eskubideen eta tolerantziaren aldeko bere apustu etengabea berresten du, bai eta ideologia arrazista eta totalitario ororen arbuioa ere.”

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tafalla, Tuter, Azagra, Zarrakaztelu eta Lizarrako eskualdeetako osasun garraiorako lehiaketa arautzen duen baldintza-orriari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Tafalla, Tuter, Azagra, Zarrakaztelu eta Lizarrako eskualdeetako osasun garraiorako lehiaketa arautzen duen baldintza-orriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak Tafalla, Tuter, Azagra, Zarrakaztelu eta Lizarrako eskualdeetako osasun garraiorako lehiaketa arautzen duen baldintza-orria atera du, zeinaren arabera kontratazio-aldia 30 hilabete luzagarrira mugatzen baita.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu kontseilariari:

- Kontseilariak nola justifikatzen du kontratuaren epea 30 hilabetera mugatzea, eta ez zerbitzuari, enpresari eta langileei egonkortasuna emanen dien epe luzeago bat ezartzea?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Iturrondo Zentroari, ekintzaile txikiei aholkularitza eta laguntza ematen jarrai dezan, 2014. urterako esleitu zaizkion giza-baliabideei eta baliabide ekonomikoei buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Iturrondo Zentroari, ekintzaile txikiei aholkularitza eta laguntza ematen jarrai dezan, 2014. urterako esleitu zaizkion giza-baliabideei eta baliabide ekonomikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2013ko abenduaren 18an ondoko erabakia onetsi zen aho batez –UPNk ere eman zuen alde-

ko botoa– Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean:

“1.- Nafarroako Parlamentuak balorazio oso ona egiten du Iturrondo Prestakuntza Zentroak alor guztietan eginiko lana dela-eta; bereziki, ekintzaileentzako aholkularitzari dagokionez.

2.- Nafarroako Gobernuari exijitzen diogu beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzen jarrai dezan, Iturrondo Prestakuntza Zentroak ekintzaile txikientzako aholkularitza eta laguntza ematen jarraitu ahal izan dezan, lortutako emaitza onei eta hortik heldu den enplegu-sorrera garrantzitsuari erreparatuta.”

Kontuan izanda CEIN-Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroak duela zenbait astetik hona bi zerbitzu berri dituela ekintzaileei eta autonomoei beren negozio-ideiak garatzea eta finka daitezkeen enpresetan eralda daitezen errazteko, ondoko galdera egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Zer baliabide ekonomiko eta giza baliabide esleitu zaizkio 2014rako Iturrondo zentroari, ekintzaile txikientzako aholku eta laguntza emateko egiten duten lan arrakastatsurekin jarrai dezan?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, Nafarroako Gobernuak Europar Batasunetik kanpoko BAMen estatusa konpontzeko garatu dituen ekintzei buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Europar Batasunetik kanpoko BAMen estatusa konpontzeko garatu dituen ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las

Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Urtarrilaren 15ean –asteazkena–, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak mozio bat onetsi zuen, hitzez hitz honakoa dioena:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio Europar Batasunetik kanpoko Barruko Mediku Egoiliarren estatusa alda dezan, orain duten ikasketa-baimenaren ordeztan eta egonaldi-baimena emanda, horrek bermatuko baiduke langabezia-prestazioa jasotzea Nafarroako Osasun Sistemaren Barruko Mediku Egoiliar sendagile gisa prestakuntza hartu ondoren”.

Nafarroako Gobernuak zer egin du egoera konpontzeko eta mediku egoiliar guztiek aukera berdinak izan ditzaten?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, Nafarroaren eta Estatuaren artean Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeko izan diren bilera teknikoei, jarduketa-agendari, aktei eta informazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren eta Estatuaren artean Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeko izan diren bilera teknikoei, jarduketa-agendari, aktei eta informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dago-kionez, hauxe jakin nahi dut:

- Helburu horrekin egindako bileren aktak igortzea eta informazioa ematea.

- Nafarroaren eta Estatuaren arteko jarduketa eta bilera teknikoaren agenda, aurreikusitako gai zerrendak zehaztuta.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Zerbitzuak 2014. urtean zehar egin asmo dituen txostenen, jarduketan eta helburuen egutegiari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Zerbitzuak 2014. urtean zehar egin asmo dituen txostenen, jarduketan eta helburuen egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Hitzarmen Ekonomikoko Zerbitzuaren sorrera iragarri ostean, honako informazio hau jaso nahi dut:

– Zerbitzu horrek 2014an zehar egin behar dituen jarduketan eta helburuen egutegia.

– Zerbitzu horren eginkizunen artean aurreikusitako txostenen xehetasuna: hitzarmenak onetsi aurrekoak, Nafarroak eta Estatuak sinatu beharreko lankidetzak akordioak, programak eta eduki ekonomikoa duten baterako jarduketako planak.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berreskuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa.

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita foru parlamentari M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez eskatzen baitu idatziz erantzuteko galdera bihurtzea bere garaian Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean ahozko erantzuna jasotzeko egin zuen ondorengo galdera hau: "Galdera, 2014ko aurrekontuetan latxa arrazako ardia mantendu, berres-

kuratu eta bultzatzeko kontusail bat sartzeko asmoari buruzkoa," hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatutako galdera idatziz erantzuteko galdera bihurtzeari dagokionez. Galdera 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, lan-talde fiskalaren lan esparruan edukien eta epeen aldetik hartu diren konpromisoak mantentzeari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, lan-talde fiskalaren lan esparruan edukien eta epeen aldetik hartu diren konpromisoak mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Parlamentuko lan-talde fiskalak aurreratua zeukan lan-egutegi bat Nieves andrea buru zuen Ogasuneko taldearekin, eztabaidatutako neurri bakoitza –guztira, 9 neurri– zein egunetarako bukatu behar zen zehazten zuena.

Hona galdera:

– Nieves andreak eta Arana jaunak dimisioa eman ostean, zure departamentuak eutsi egiten al die lan-talde fiskalaren lanen esparruan hartutako eduki- nahiz epe-konpromisoai?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Goenaga andreak Zergen arloko Heziketarako Estrategian prestatu eta Nafarroako Gobernuak bere eginen dituen neurriei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Goenaga andreak Zergen arloko Heziketarako Estrategian prestatu eta Nafarroako Gobernuak bere eginen dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Lan-talde fiskalean aurreratutako lanen esparruan, bazen kontu puntual bat, lan-dokumentu bat jadanik bazeukana eta Gobernuaren erabakiaren zain zegoena.

Hezkuntza Fiskalerako Estrategiaren atalari buruz ari naiz. Ogasunak kontratatutako adituak –María Goenaga Ruiz de Zuazu andrea– agiri/proposamen bat egin zuen, arlo horri buruzko neurriak biltzen zituena.

Hona galdera:

– Goenaga andreak proposatutako neurrietatik, zeintzuk onartuko ditu Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

